

HAUTESKUNDEAK 93

EZ-BAIKA

Jose Luis ALVAREZ EMPARANTZA «TXILLARDEGI» / Idazlea

«Decourager Billancourt»

*Olde
abertzalearen
zuzperkuntza
ezin daiteke
etor, eta ez
da etorriko,
HBtik eta
HBren eskutik
baizik.*

NIRE belauen abertzale askori gertatu zaio gartzela eta deserria dastatu beharra.

Eta atzerrialdi luze «horri esker», nolazpait esateko, ezker ofizialaren inguruan entzun eta irakurri genuen maiz esaldi famatu hura: «Il ne faut pas décourager Billancourt». Paris inguruetako auzo langile hori paradigmako bihurtu zen. «Il ne faut donner des armes à l'ennemi de classe». Isildu egin behar da, hitz batez. Horixe zen Alderdi Komunisten agindua. Eta ezker ez-ofiziala isildu egiten zen.

Nahiz gauza nabarmena izan egia ez besterik dela iraultzailea.

Hots, orain hain zuzen, ekainaren 6ko emaitzak agirian daudelarik, argi eta garbi hitz egin behar da. «Billancourt-entz mingarri gertatuko bada ere».

Ez dira zifrak errepikatu behar: jasoak ditu prentsak, eta gogoan hartuak agian irakurleak. Hauteskunde kopuru horiek mito bihurtu gabe ere, abiapuntuztat behar dira hartu. Espainiar alderdiek, oro har, gora egin dute. Horixe eman du Ajuria-Eneko Itunak. Pozik egon bide daitezke Arzalluz. Bere neo-karlistismo gora joan da, eskuindar alderdiak nabarmenki bultzatu. Garaikoetxea errekaratzeko bidean abiatua da, nahi zuen bezala. Espainiar-kuntzaren azkartzea berdin zaio, hori ona baita Espainiarentzat.

Gure azterketa, horretan utzita, maingutik gedituko litzateke.

PNVa ez da alderdi abertzalea. Hertsiki esan daiteke euskal errejonalismo karlista zaharraren semea dela. Zergatik?

1.- Euskal mundu politikoan PSOEa zilegiztatzea, PNVak lortu du. Instituzio guztietan sarrera emanez, PSOEa «partido de aquí-bihurtu da. «Somos tan vascos como el que más», diote harro-harro.

2.- 1991an PNVak puskatu zuen «Tripartito» hura; eta gakoa lotsarik gabe aitortu zuen: Udal independentisten olatua freinatu behar zen nola-edo hala.

3.- PNVak puskatu du ikastolen mugimendua. Nork bota zuen Oliveri Hezkuntza-Sailburuzatik? Ikastola erauzteko asmoa Recaldek mamitu zuen aurrenik; eta Buesak burutu du. Nork jarri du Sail hori,

behin eta berriz, euskararen etsai amorratuaren eskuetan?

4.- PNVak jarri du barragarri, behin eta berriz, Euskal Herriaren askatasun-egarrira; Leizaola-gandik hasi eta Arzalluzgaraino. Eta PNVaren Batzarrean bertan Ardanza *lendacariak* berak hitz egin du lotsarik gabe burujabetzaren aurka (1989ko martxoan).

5.- PNVak ito du Auto-Determinazioaren aldeko bultzada; «Euskaria» taldeari berari bizkar emanez, eta arc Gasteizko Agiri deskafinatua zokoratuz.

6.- Gure industriaren erauzketa betean, erauzketa hori erabaki duen alderdiari egin dio ohea, unil-unil. PNVak.

7.- Bukatzeko, eta laburki, PNVak eman dio baimena Madrilko polizia-herriaren nahi duena egin dezan (Corcuera-Gegea); egin zezakeen guztia egin du «Egunkaria» itozteko; ETB-2 lardaskatu du, ultra-espainolisten bilgune bihurtu arte; Muguruza diputatuaren hilketa gertatzean, ahal zuen guztia egin zuen HBk egindako opor-deia porrotta izan zedin (ez da harrizketa orain Gorostidiren osasunaz edukazioz ere ez kezkatzea); «acatar por imperativo legal» jukurtia ez du onartu; PNVak gogoz onartzen baitu espainiar legetasuna; ustelkeria eta adiskidekeria hedatu ditu mundu politikoan, makina txanpon-jaleak, entxufismoak, eta azpikeriak oro ugalduz.

PNVa, hitz batez, traidore-partidu bihurtu da. PNVa saldua dago hertsiki; eta euskal Quisling guztien babesleku bilakatu da. Bada garaia hau seriotan hartzeko.

HB gelditzen zaigu. Besterik ez. Egon badaude, jakina. EA eta Euzkadi, zineko abertzale batzu. Askokto agian. Eta hau kontutan hartu behar da. Baina bi partidu politikoan praxi politikoa ahanzi gabe. Bi zuzendaritza horiek, herabe, PNVaren morroin dira, izan.

Hortaz, eta gaur gaurkoz, funtsik ez du «Fronte Abertzale» delakoa ai-

patzea; alderdi abertzale bakarra baitago, gaurkoz: HB. Bere oinarri soziologikoan eta bere borrokan HB da alderdi abertzale bakarra. Gezurrez laidoak, lanik gabe eta ordezkaritza publikorik gabe iraziak, soldatarik gabe utziak, kartzelaratuak, HBren inguruko jendeak etsi dio hemen askatasunaren zuziari.

Horregatik, olde abertzalearen zuzperkuntza ezin daiteke etor, eta ez da etorriko, HBtik eta HBren eskutik baizik. HB esatean, HBren erakunde haurreak oro ditugu gogoan. Baina zuzperkuntza hori arretzeko, autokritika ausarta ere egin behar dugu. Sartrearen hitzak gure ginez, «Billancourt-entz mingarri gerta badaiteke ere».

Gozan errazenetik zailenera. Alde batetik, eta hauteskundeetara joanez gero, zerrendetan ez dira mehezimendua hartu behar kontutan; boto biltzen laguntzaile gertatuko diren pertsonak baizik. Nik ez dakit Esnaola eta Aldekoa, adibidez, zergatik ez diren HBko zerrendetan agertu. Baina ziur nago horrek botoak kendu dituela. Eta kezak arrazitu.

Beste batetik: HBko militanteek ahaletin gaitza egin dute hauteskundeetakoan. Eta fruitua ez da bildu. Zergatik? Zerbaitek geldotzen du HBren igoera. Nahiz PNVaren eta EAren jokoak abertzale asko nardatuta izan. «Zerbait» hori zer den aztertzea behar dugu.

Eta nik neuk erratu nabarmen batzu aipatuko ditut hemen, nitaz beste inor nahasi gabe. Nere iritzia dira. Zer gertatu da bada lau urte honetan Herri Batasunak fruitu gehiago ez biltzeko?

1.- Leizarango Autobidea. Arazo hori ez da inondik ere herri honen ardatz-arazoa. Ene gutxiago erakunde armatuak mahaiztu egiteko arazoa. Urte askotan barrena abertzale jende fin asko nazkatu dugu, eta soluzioak «inposatu» nahi ditugula sinetsarazi.

2.- Euskadi ez da Nikaragua; baina sandinisten porrotta gure porrotta izan dela eman dugu adizter. Gorbatok errebeionista nazkagarritzat salatu dugu, berorren aurreko stalinismoaz tutik esan gabe. Euskadin «Europako Kuba» eraiki nahi dugula eman dugu adizter (hango alderdi, bakarra, marxista-leninista, eta preso politikoak ahanztuz). Gorrin betean orain dela 50 urteko antolakuntza onartu dugu (luzaz behintzat): oinarrian masa-mugimendu «progresista» bat; eta, zuzendari, abangoardia «leninista» erdi-izkutu bat. Hots, herriak (eta etsaiak, jakina) irentsia duen «eredu» hori, hilgarri da HBrentzat. Eskema hori kaltegarria eta anakronikoa da. HBk programa minimoa behar du; programa zabalda gizaite-eredu eta ideologiar buruz. Ez gaitzen berriro izan galdua den projektu baten azkeneko mohikanoak.

3.- Gaur sekula baino areago: sindikalismo abertzalea indartu behar da. Baina ez hitzeko ezkerkeriaz; fabriketan, itsasontzietan eta lantokietan lanari etsiz baizik. Gaur ez da ideologiarren garaia, langabazaren kontrako borrokarena baizik.

4.- Aspaldixodonak bezala, hauek galdetzen diot nik neure buruari: balio ahal du Instituzioetan parte hartzea? Aspaldiz gerotik irakurtzen nautek badakite: ez dut uste. Gauza bat da hauteskundeetan parte hartzea, eta gure etsaiak botoekin batera legitimitatea kentzea. Eta beste bat Instituzioetako lokatzen mugitzea. Noren eskuetan dauden ikusita, indar-harremana nola dagoen jakinda, zalantza handiak ditut. Eta abstentzioaren parte bat ideia hauetan funtsatzen da. «De facto» instituzioetan HBak zilegiztatu egiten du sistema; eta bere ahaletza (numerikoa) nabarmen uzten. Balio ahal du?

Nik HBean dut fidantzia osoa. Honen arrakasta harrigarria lortzeko baldintza bakarra hau da, ene uestez: borroka, ardatzen kokatzea. Burujabetza, Auto-Determinazioa, hizkuntza. Horra hor nik somaten ditudan oinarri bakarrak. Arteen lanari eta langileen eskabideei dagokien lekua ematen digularik. Puntu batzu, jakina, tinta-ontzian gelditu dira. Berariaz, noski. Irakurleak ongi daki zergatik. Eta gudariek ere bai.

Alejandro TERRONES / De la Ejecutiva de Administración Local y Foral de Euskadi - CCOO

Voto consciente o...

*HB no es y
nunca debe
de ser
exclusivamente un
movimiento
abertzale.*

DADO el resultado electoral se podría decir que la sociedad vasca se ha derechizado, pero para saber en qué porcentaje, habría que definir primero qué es derecha:

— Los que se autodenominan así (PP, PNV...).

— Los que hacen una política de derechas, con flexibilización laboral, privatización de servicios públicos, sanidad... congelación de salarios (de los trabajadores, claro), etcétera, y aquí hablaríamos de partidos como PSE-EE, EA...

Es decir, podríamos pensar, a la vista de los resultados que la gran mayoría de la sociedad vasca es de derechas. Y nos preguntamos, por otra parte, cómo un trabajador (de los muchos que desgraciadamente existen) con hijos en paro o trabajando por un salario mísero, con contratos temporales que le impiden (además de los precios) el acceso a una vivienda digna y rodeado de infinidad de problemas sociales, da su

voto a los que en años no han hecho nada por él, o a los que desde una oposición de espejismo se han dedicado a pasarle la mano por el lomo para seguir rapiñando en sus cotas de poder, después, eso sí, de lavarse bien la mano, pues ya se sabe que el sudor del trabajo para algunos no es muy aséptico.

Así, no podemos interpretar ese voto por su ideología estatal, sino como que le engañan, y la clave de esta trampa se llama «información».

Información manipuladora del capitalismo, que durante toda nuestra existencia nos persigue en anuncios, mensajes a través de la prensa, tele-

visión, radio... que nos dice que bienestar es sinónimo de consumismo, y claro, no vamos a poner en peligro con un voto no comunista la comodidad del sistema que nos permite comprar «en cómodos plazos» una televisión más grande, más coloreada y seguramente igual de cuadrada que muchas cabezas (aunque justo se sobreviva para llegar a fin de mes).

Información sesgada y manipulada por los medios controlados por el sistema, donde están casi todos los partidos. Información que la izquierda representada en Euskadi por HB y otros grupos que de una u otra

forma apoyamos esta opción, no consigue hacer llegar a los ciudadanos, bien porque es vetada o porque centra su discurso en unos temas, quizá de forma excesiva, olvidando otros que dentro de su seno ni se discuten.

En definitiva, se debe explicar a los ciudadanos que HB no es (y nunca debe de ser) exclusivamente un movimiento abertzale, trabajando internamente alternativas en política económica, solidaridad hombres/mujeres, problemática de los jóvenes, ancianos... vivienda, reparto y gestión de fondos públicos... y compartiéndolo con las mujeres y hombres de Euskadi.

Es el trabajo de nuestra izquierda hacer calar nuestro mensaje y valores, día a día, entre el potencial ideológico de izquierdas que somos los trabajadores. Quedan casi dos años para las autonómicas, y aunque la «caja tonta» es un duro enemigo, no es invencible.